

Eskola-jazarpena edo *bullyinga*

Eskola-jazarpena edo *bullyinga* mehatxu larria da ikaslearen osoko garapen zuzenerako. Ikasle batek, behin eta berriro eta denboran zehar, ikasle batek edo gehiagok bere aurka nahita egindako ekintzak jasaten dituenean gertatzen da eskola-jazarpena.

Ikasleak berekiko boterea duen pertsona bezala ikusten du erasotzailea, horregatik, babesik gabeko egoera baten dagoenez ezin izango du egoera hori berak bakarrik gainditi.

Zelan jartzen da agerian?

Eraso fisikoak: Jo, bultza egin, biktimaren gauzak apurtu edo lapurtu, etab.

Ahozko erasoak: oihuka eraso, burla egin, zurrumurru faltsuak zabaldu, etab.

Harreman-erasoak: taldeko ekintzetatik nahita baztertu, parte hartzea eragotzi, ez ikusiarena egin, etab.

Bullyinga biktimak behin eta berriro jasaten duen indarkeria psikologiko bezala agertzen da. Hauetako eraso askok oinarri arrazista, sexuala edo homofoboa dute. Batzuetan, Facebook edo Messenger bezalako gizarte-sareak erraztu egiten dute erasoon zabalkundea.

Nola antzeman?

Jazarpena jasaten duen ikasleak ez du eskolara joan nahi, ez lagunekin irten. Etxera bueltan sarritan jantziak edo bere gauzak apurtuta dakartza. Adierazi ezin diren ubeldura edo zauriak izaten ditu.

Osasun arazoak izan ditzake (botaka egin, buruko minak, lo egin ezina) edo arazo

psikologiko arinak. Hauek guztiak larriagotu egin daitezke egoera konpontzen ez bada.

Eskola-errendimendua jaitsi egiten da.

Zer egin dezakete gurasoek?

Batzuetan ikasleek eurek jotzen dute nagusiengana laguntza bila. Kasu hauetan, bai gurasoak bai eskola-komunitatea inplikatu behar dira arazoari konponbidea emateko.

Ikaslea babestuago sentituko da bere etxeko giroa positiboa bada, arazo honi konponbidea emateko bere ingurune osoak hartu behar duelako konpromisoa.



Garrantzitsua da eskolari eta irakasleei laguntza eskatzea.